



Etsipena

1

Begiratu arretaz Emoziotegiko 74-75. orrialdeetako irudiari, eta erantzun galderei.

- Zer animalia ikusten duzu? Nola uste duzu sentitzen dela?

- Uste duzu nekatuta dagoela? Zertan nabari duzu?

- Uste duzu oso urrun iritsiko dela? Zergatik?

- Zer sentsazio helarazten dizu irudiak?

2

Kasuren batean sentitu zara tigrea bezala eta pentsatu duzu helbururen bat ezin zenuela lortu? Noiz? Azaldu ezazu.

3 Irakurri Emoziotegiko 74. orrialdeko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- Etsipena adore falta da.
- Etsitzen dugunean, badirudi dena errazagoa dela.
- Etsipena behin eta berriz gertatzen den akats bat da.
- Etsitzen dugunean, dena zailagoa iruditzen zaigu.

4 Zer nabari dugu **etsipena** agertzen denean? Markatu.

- nekea
- arnasa hartzeko arazoak
- desorientazioa
- egitekoa betetzeko zailtasun handiagoa

5 Irakurri **adore** hitzaren definizioak, eta idatzi dagokion zenbakia esaldi bakoitzaren ondoan.

adore

1. Kemena, bizidunen indarra.

2. Oztopo, neke eta arriskuei aurre egiteko gaitasuna.

- Mikel sendoa da, indartsua; Andoni, berriz, argala eta adore gutxikoa.
- Esku artean zuen guztia lapurtu zioten, ez baitzuen adorerik izan erasotzaileei aurre egiteko.

● Orain, idatzi zuk **adore** hitzaren 2. definizioari dagokion esaldi bat.

6 Osatu esaldiak **adorearen** familiako hitzekin.

adore > adoregabe adoretu adoretu adoretu

- Zailtasunen bat agertzen zaizun bezain laster, ez zara saiatu ere egiten.

_____ hutsa zara.

- Lasterketa gogorra zen arren, ez nuen etsi. _____ ekin nion bideari, eta helmugara iristea lortu nuen.

- Maitane _____ da oso; ez du ezertan etsitzen.

- Alainek bere lehenengo triatloia egingo du gaur, eta _____ egin behar dugu. Denon oihuak eta txaloak beharko ditu!

7 Azpimarratu **etsi** esanahia duten hitzak.

adoregabetu desegin gogogabetu abaildu kikildu

8 Irakurri esaldiak, eta markatu zuzenak iruditzen zaizkizun haiek.

- Mirenek erdibidean utzi zituen ikasketak: gajoak etsi egin zuen.
- Maitanek igeri egiteari utzi zion haitza urrunegi zegoela iruditzen zitzaiolako: etsi egin zuen.
- Josebak atletismoa utzi zuen: etsi egin zuen.
- Orain, inguratu "amore eman" esapidearen esanahi bera duten aditzak.

erori

utzi

etsi

9 Irakurri Aitorri gertatzen zaiona, eta erantzun galderi.

Txindoki mendiaren gailurrera bidean noa. Izugarrizko beroa egiten du. Duela bostehun metro inguru, uste nuen gailurrera irits nintekeela... Baina orain astun sentitzen ditut zangoak, eta izerdi patsetan nago. Helmuga geroz eta urrunago ikusten dut. Ez dut uste lortuko dudarik. Lurrean etzan eta atsedean hartu besterik ez dut egin nahi.

Aitor

● Etsita al dago Aitor? Zertan nabari duzu?

● Helmuga hurbilago al dago orain duela bostehun metro baino? Zer iruditzen zaio Aitorri?

● Uste duzu Aitorrek etsi egingo duela? Zergatik?

10 Idatzi Aitorri adore emateko esaldiak.

11 Idatzi bi urte zenituenean egiten ez zenekien hiru gauza. Heldu bati galdetu diezaiokezu.

12 Idatzi duela urtebete egiten ez zenekien hiru gauza.

13 Irakurri esaldi hauek. **Etsitzen** dugunean esan ohi ditugu. Zehaztu itzazu, adibidean bezala, hainbeste adoregabetu ez gaitzaten.

- Ez dut lortzen.

Oraintxe bertan, ez dut lortzen ariketa hau ondo egitea.

Geroago saiatuho naiz.

- Ezingo ditut inoiz matematikak ulertu.

- Ez dakit bizikletan ibiltzen. Ez dut inoiz ikasiko.



Etsipena

OHARRAK

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.